

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Araubidean egin daitezkeen moldaketak, gaztetxoek kirola D ereduan egin dezaten ziurtatzeko

EGILEA:

Unai Aberasturi
Iñaki Lasagabaster

DATA:

2016/04/22



Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Eskumenen banaketa.....	4
3. Araubide orokorretako xedapenak osatzeko proposamena.....	6
4. Eragile ezberdinak subjektu eragileak.....	8
5. Tresnak.....	14
6. Xedapen iragankorra.....	23
7. Ikuskaritza.....	24



1. Sarrera

Gaur egun inongo dudarik ez dago, eta azkeneko datuek horrela diote, euskarak eskoletan daukan helmena gero eta handiagoa dela EAEn. Adibide bat jartzearen, Araban azkeneko sei urteetan D ereduan matrikulatutako Lehen Mailako Hezkuntzako ikasleak 7.652 izatetik 10.358 izatera pasa dira¹. Ematen du, beraz, gazteek euskaraz ikas dezaten planteaturiko erronka lortzen edo gainditzen ari dela urtetik-urtera. Haatik, egoera hau euskarak praktikan daukan erabilerarekin kontrajarri dezakegu. Agerikoa da ikasleek egiten duten euskararen erabilera ez datorrela bat daukaten ezagutza mailarekin. Gero eta ikasle gehiagok ezagutzen dute euskara, baina erabilera orokortu eta naturala ez da proportzio berean hazten. Honela izanda, egun euskararen inguruan planteatzen ari den erronka berria zera da: gazteen euskararen erabilera normaldu eta ohiko bat bultzatzea eguneroko bizitzan. Ikastetxeak gune aproposa dira helburu horretarako, kontuan hartzen bada gazteek bertan denbora ugari ematen dutela, era ezberdinetako jarduerak burutzen dituztela eta mota ezberdinetako harremanak garatu. Hain zuzen jarduera horietako bat eskola kirolarena da. Ezaguna da hainbat eta hainbat ikaslek kirolen bat egiten dutela. Askotan ikastetxeetan bertan, besteetan klub-en edo kirol elkarteren batean. Edozein kasutan eskola-orduetatik kanpoko kirolen bat egiten duten ikasleak ugariak dira. Honela, jarduera eremu horretan euskara bultzatzeak interes handia eduki dezake orokorrean gure gizartean euskararen erabilera normalizatzeko.

Lan eremu edo gai hau konplexua da benetan, arrazoi ezberdinengatik: Batetik, harremanetan jartzen dira errealitate eremu ezberdinak: euskara, kirola, hezkuntza. Bestetik, gai hauek izaera transbertsala edo zeharkakoa daukate eta gai ezberdinen gain eragiten dute. Hirugarrenik, errealitate eremu honetan eragiten duten beste hainbat gai aurkitu daitezke: diru-laguntzak, laguntza-hitzarmenak, baimenak... Azkenik, kontuan hartu behar da, euskararekin askotan gertatu den legez, bere erabileraren normalkuntzak ez dituela bakarrik neurri juridikoak galdatzen, baizik eta erabaki politikoak eta testuinguru sozial egoki bat ere beharrezkoa dela. Honek guztiak asko zailtzen du azterketa juridiko zehatz bat egin ahal izatea, erantzun egoki eta itxi bat emateko hemen planteatzen zaigun erronkari. Gaur egungo araudiak gai honen inguruko xedapen ugari jasotzen du. Araudia hau oinarri nahiko sendoa dela aurreratu daiteke, gazteen kirol jardueran euskara bultzatzeko. Edozelan ere, egia da araudia hori aldatu edo osatu daitekeela hainbat kasutan. Hemen lan horren abiapuntua izan litekeen proposamen bat luzatzen da.

¹ <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/estadistica-educacion/-/informacion/matricula-graficos-evolutivos/>



2. Eskuduntza banaketa

II.1. Eskuduntza banaketa arau orokorretan

Egokia dirudi abiapuntu gisa aztertuko dugun gaiaren ikuspegi orokor bat izateko administrazio ezberdinen eskuduntza banaketa nola antolatzen den aurkeztea, nahiz eta era orokor eta deskriptibo batean egin.

a) Erakunde amankomunak: Autonomia Estatutuak dionez, EAEren eskuduntza eskusiboa da kirolari dagokion gaia (10.36. artikulua). EAERI dagokio baita ere euskara bultzatzea (6. artikuluan).

b) LLHH: Abiapuntua hau izanik LLHHL (Lurralde Historikoen Legea, 27/1983), orokorrean, LLHHLaren 6. artikulua jarraituz, Erkidegoari dagokio arauketa orokorra eta LLHHei arauketa horren exekuzioa. Kirolean gauza bera gertatzen da 7.b.6) artikulua aztertu ezker: LLHHei dagokie hurrengo gai hauetan Erakunde komunek onartutako araudiaren garapena eta exekuzioa: “*Kirolaren sustapena. Eskola kirolaren eta denontzako kirolaren programak*”. Lege honen 8. artikulua jarraituz, LLHHei dagokie gai hauetan garapen eta exekuzio hori posible egingo duten “arauen onarpena, araudia autonomikoa garatzeko”, “erregelamenduen onarpena”, “jarduera administratiboa (ikuskaritza barne)”, eta berrikuste jarduera (bide administratiboan).

c) Udalak: 2/2016 Lege berria EAEko Toki Erakundeei buruzkoa (indarrean): 1) Euskara: bere jarduera eremuan euskara bultzatu eta sustatzeko, eta bere erabilaren normalizaziorako planifikaziorako eskuduntza eskusiboa (7.1. art.); 2) Kirola: 17.1.19. art.: “*Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea*”.

II.2. Eskuduntza banaketa Kirol Legean

Aurreikuspen hauek gure araubidearen oinarrian dauden arau garrantzitsuenetan jasotzen dira. Nahikoa izan daitezke eskuduntza banaketari buruzko ikuspegi orokor bat izateko. Hala ere, honez gain arau zehatzagoetan era argiago batean jasotzen da eskuduntza banaketa:

Kirol Legean (14/1998):

1) Erkidegoko erakundeei: 4.2. artikuluan: “*Kirol-diziplinako arauak finkatzea*”; “*Kirol Federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe*”; “*Kirol-teknikariak prestatzeko zentroak eta horietako irakaskuntzak eta tituluak arautzea, ofizialki onartzea eta bultzatzea*”; “*Kirol-federazioen, kirol-kluben eta gainontzeko kirol-erakundeen araubidea finkatzea*”; “*Kirol-klubak interes publikoko izendatzearen arautzea*”; “*Eskola-kirolaren oinarriak eta printzipioak, kirol-diziplinako araubidea eta lehiaketak finkatzea*”; “*Kirol-zentroak arautze*”



2) LLHHei: 5. artikuluan: “Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea”, “Kirola guztientzat sustatzeko kirol-politika onartzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatze”; “Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteek beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzea kontrolatuko da”; “Lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe”;

3) Udalei: 6. artikuluan: “Lurralde historikoetako foru-organoek onartutako eskola-kiroleko programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatzuz”; “Lurralde historikoetako foru-organoek kirola guztientzat zabaltzeko onartutako programak gauzatzea”

II.3. Ondorioak

Nahiz eta guri dagokigun gai honetan eskuduntza banaketa zein den zehaztea zaila den, gai ezberdinak daudelako eta gainera gai horiek oso traserbetsalak edo zeharkakoak direlako, aurkeztu dugun eskuduntza banaketa honek nahikoa oinarri jasotzen du Administrazioek ahalmen ezberdinak egikaritzeko: Erkidegoak arautu; LLHHei exekutatu; Udalek lagundu eta exekuzio hori zehaztu LLHHei batera. Eskuduntza banaketari buruz azaldu dugun mapa honen zehaztapena hurrengo arauen zerrendan ikus daiteke: -Erakunde komunek onartutako Kirol Legea, Eskola Publikoari buruzko Legea, Euskararen erabilera arauzkotzeko Legea, Eskola Kirolari buruzko 125/2008, Dekretua; 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa; 16/2006 Dekretua, utarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena; 163/2010 Dekretua, ekainaren 22koa, Kirol klubei eta kirol elkartei buruzkoa; 287/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, Euskal Federazioen Kirol-programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duena; -Gipuzkoako Foru organoek onartutako 3/2007, martxoaren 27ko Gipuzkoako Foru Araua, Diru Laguntzei buruzkoa; 63/2007, Gipuzkoako Foru Agindua, Eskola Ikasleentzako kirol teknifikazioko unitatei baimena ematea arautzen duena; Bizkaiko 1305/2015 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Diru Laguntzak eman eta Laguntza Hitzarmenak sinatzeko prozedurari buruzkoa; 03-059/2014 Foru Agindua, 2014-2015 ikasturteko eskola kiroleko jardueren programa onartzen duena.

Ikus daitekeenez, mapa honek aukera ematen du erakunde eta eragile ezberdinek, araubide hau kontuan hartuta, hainbat ahalmen edo funtzio egikaritzeko eskola kirolean euskara sustatu ahal izateko. Helburua, beraz, euskara faktorea mapa juridiko edo araudia honetan nola jaso zehaztea izango da.



3. Araubide orokorretarako osatzeko xedapenak

Kirol eskola eremuan euskara bultzatu ahal izateko beharrezkoa da lehenik eta behin jarduera hori oinarritu ditzaketen adierazpen edo xedapen orokorrak. Pentsa, euskararen bultzatze jarduera honetan botere publikoek era ezberdinetako jarduerak egikaritu beharko dituztela: sustapen, ikuskaritza, zigor... jarduera. Jarduera zehatz hauek, kirola eta euskararekin harremana daukaten eremu zehatzetan aurrera eramango direnak, oinarri juridiko orokor bat beharko dute, nolabait gida-printzipio gisa funtzionatuko duena. Aurreko ponentzia batean, arau orokor hauek era egokian aipatu eta aztertu ziren, gure gaiari aplikagarri zaion araudiaren mapa oso bat plazaratuz. Pentsa daiteke egun indarrean dagoen araudian jasotako xedapenak nahikoa izan daitezkeela gure helburua betetzeko, batez ere xedapen batzuen interpretazio hedatzailea egin ezker. Haatik, atal honetan testu horiek osatzera zuzenduriko proposamena azaltzen da oinarri juridiko sendoago bat izate aldera:

a)KIROL LEGEA, 14/1998:

Lege honetan euskarari buruzko aipamen bakarra jasotzen da. Artikulatuan xedapen ezberdinetan (2., 55. eta 56. artikuluetan, adibidez) euskara faktorea jasotzea eta 3. Xedapen Gehigarria osatzea proposatzen da. Azken hau da, hain zuzen euskarari egiten zaion erreferentzia garrantzitsuena (eta bakarra), Lege honetan: *“Kirol-federazioek beren jardunean euskararen erabilera normaltzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Bereziki, katalogoetan, programetan, iragarpen-hormirudietan eta beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen duten gainontzeko irudizko edo entzutezko materialean bultzatuko dute euskararen erabilera”*. Kontuan izanik xedapen hau guri dagokigunean euskara bultzatzeko oinarri garrantzitsuena izan daitekeela, bere idazkera osatzea proposatzen da: 1) Deigarria da *“Federakundeei”* aipamena egitea bakarrik. Esan lezake zentzu orokorrago batean: *“Federakunde, Klub (gutxienez erabilera publikoko edo onura orokorrekoak), ikastetxe eta administrazioek”*, adibidez. Edo kontzeptu orokorrago bat erabiliz: *“Beraien funtzioen egikaritzan gai honetan jarduten duten eragileek”*; 2) Programa eta abarrak aipatzeaz gain, aipamen zehatzagoa egin lezake baita ere *“dirulaguntza eta lankidetzaren hitzarmenei”* kontuan izanik praktikan duten garrantzia.

b)125/2008 DEKRETUA, ESKOLA KIROLARI BURUZKOA:

Dekretu honek ez du jasotzen euskarari buruzko aipamenik eta komenigarria litzateke horrela izate oinarri sendo bat izateko, espresuki errealitate eremu horretan. Adibidez:

-6.2. artikuluan: araudi, programek eta bestelako jarduerak jarraitu beharreko helburu orokorrak deskribatzen dira, printzipio orokor gisa. Adierazpen edo helburu orokorrak aipatzen dira: *“Horrekin, haurrak hezkuntza balio positiboak -kirol lehiaketaren balio espezifikoak barne- bermatzen dituzten inguruneetan garatzeko prozesua osatuko da, kirol modalitate ugariaren berri jasotzea sustatuko da, kirol ohiturak sortzea, bizimodu osasungarri batez hezte, eta modalitate ezberdinetako kirolariak eta kirol ikusleak prestatzea”*. Adierazpen orokor honetan bestelako kontzeptuak barneratu litezke beste arau batzuetan egiten den legez, *“berdintasuna eta euskararen erabileraren normalizazioa”* ere barneratuz. Edo/Eta,



-Aipamen orokor bat jaso liteke honelako eduki orokor batekin: “Eskola kirola sustatzeko onartuko diren diru-laguntza, hitzarmen eta programek kontuan hartu beharko dituzte Dekretu honek jasotzen dituen printzipio orokorrak eta ezaugarriak”

c)1/1993 LEGEA ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA

Lege honetan euskarari egiten zaion erreferentzia jarraitua da. Haatik, posible litzateke eskola orduetatik kanpoko jardueri erreferentzia egitea, euskarari dagozkion irizpide orokorrak jarduera eremu horretan aplikatu ahal izateko.

d)EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA 10/1982, ARAROAREN 24KOA

15. Artikuluak eta hurrengoek irakaskuntzan euskara bultzatzeko jardueri egiten diete erreferentzia. Arauketa mugatu egiten da irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea eta irakaskuntza arautuan euskara ikasteko eskubidea arautzera. Ulertu dezakegu helburu hau, hein handi batean gutxienez, lortu dela. Honela, posible litzateke pausu bat aurrera eman eta Lege honetan ere eskola jarduera ezberdinei aipamena egitea, ez bakarrik euskaraz ikasteko eta euskara ikasteko eskubideak bermatzeko, baizik eta eskolan (ez hainbeste irakaskuntzan) euskara erabiltzeko.



4. Eragile ezberdinak

Aurreko atalean araudia orokorrenari egin diogu aipamen txiki bat, eskola kirolean euskararen erabilera bultzatu ahal izateko oinarri juridiko sendo bat izateko asmoarekin. Ildo berean, araudia orokor hori osatzerako orduan, kon-tuan hartu beharko dira jorratzen ari garen gaian parte hartzen duten eragile ezberdinak. Nolabait, eragile hauek be-
raien jardueran euskara bultzatu dezaten oinarri juridikoa aurkitu ezker, errazagoa izango da eta praktikan, jardue-
ra zehatzetan, euskara bultzatzea edo erabiltzea galdatzea. Honako hauek izan daitezke eragile garrantzitsuenak:

IV.1. Federakundeak:

a) 14/1998 Kirol Legean (15, 25 eta 32. artikuluetan) eta 16/2006 Dekretuan, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Fe-
derazioena (2. art.), jasotzen denez, federakundeek, nahiz eta oinarri pribatua izan argi dago funtzio publiko garran-
tzitsuak dituztela eta interes orokorreko jarduerak egikaritzen dituztela. Horregatik, beraien jarduera eta antolakuntza
arautzen da. Honela izanda, funtsean federakundeen kasuan, esku-hartze publikoa handiagoa izan daiteke eta exi-
jentzia maila ere altuagoa izan daiteke auzitegiek onartu dutenez (administrazio zuzenbidea aplikagarri zaielarik eta
erabaki batzuk Administrazioarekiko Auzibidezko Jurisdikzioan errekurritu daitezkeelarik) gutxienez funtzio publiko
horiek egikaritzen dituztenean.

b) Federakundeei dagokionean euskara faktorea jasotzeko oinarri juridiko sendoa aurkitu dezakegu:

-Batetik, goian aipatu Kirol Legearen 3. Xedapen Gehigarrian.

-Bestetik, 16/2006 Dekretuaren 165 eta hurrengo artikuluetan. 165. art. eta hurrengoetan Federazioetan Euskararen
erabilerari egiten zaio erreferentzia. Bi zentzutan: 1) Barne funtzionamenduan 165 (“Euskadiko kirol federazioen hi-
zkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira”) eta 166. artikulua (“1.– Dekretu honetako aldi baterako hirugarren
xedapenean zehazturik dagoenaz gain, kirol federazioek nahitaez errespetatu behar dute Euskal Autonomia Erkide-
goko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, gutxienez, honako dokumentu hauetan:

- a) Federazio lizentzietan.
- b) Txarteletan, agirietan eta ematen diren antzeko agirietan.
- c) Estatutuetan, arautegietan eta zirkularretan.
- d) Lehiaketak iragartzeko karteletan.
- e) Federazioko organoen deialdietan.

2.– Ziurtagiriak bi hizkuntzetan edota Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean eman ahal izan-
go dira, interesdunak berriaz hala adierazten badu”); 2) Kanpo funtzionamenduan, beste subjektuekin dituzten ha-
rremanetan: lehiaketa, etab.: 167. artikulua: “Kirol federazioek dagozkien babes administrazioek ezartzen dituzten
epeetan eta baldintzetan beharko dituzte hizkuntza normalizatorako planak taxutu, onartu eta gauzatu, gutxika fe-
derazioaren baitan euskara arruntki erabil dadin bermatze aldera. Betebehar hori ez betetzeak diru laguntzak jaso-



tzeko aukera galtzea ekarriko du". Kasu honetan planari egiten zaio erreferentzia, baina posible litzateke Erregela-mendua onartzera behartzea. Bestalde, Plan hauetan euskara bultzatzea galdatzen da "federazioaren baitan", eman

dezake barne funtzionamenduari egiten zaiola erreferentzia, baina espainieraz dagoen testuan "vida federativa" esaten da, eta ematen du posible dela interpretazio zabalago bat egitea, federazioaren funtzio guztiak ukitzen dituzten errealitate eremu ezberdinak besarkatuz: lehiaketak, hezkuntza... Edozein kasutan, egokiagoa litzateke kontzeptu hori, "federazioaren baitan", zabaltea eta jarduera zehatzak aipatzea: lehiaketak, etab.

-Baita ere, 16/2006 Dekretuaren 3. Xedapen Iragankorra: *"Kirol federazioek hizkuntza normalizatzeko duten betebeharrari pixkanaka erantzungo diote. Estatutueto eta arautegietako xedapenek, zirkularrek, ziurtagiriek, lizentziek eta txartelek edota gisa bereko agiriek, federazio organoen deialdiek eta kirol federazioen lehiaketen kartekek, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dute dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo denboralditik aurrera, salbu eta dekretua hau indarrean sartu eta sei hilabete igaro baino lehenago hasten bada denboraldi hori. Premiazko kasuetan baino ez da onartuko agiri horiek Euskal Autonomia Erkidego bi hizkuntza ofizialetan ez izatea."* Kontuan hartuta araua onartu zenetik 10 urte igaro direla araua bera aldatzean pentsa daiteke. Edozein kasutan Xedapen Iragankorra ezartzearen ideia interesgarria eta ezinbestekoa da praktikan aurrera egin ahal izateko, izan ere errealitateak dio federakundeek denbora izan beharko dutela beraien jarduera, *ad extra* eta *ad intra*, moldatu ahal izateko, horrek behar izango duen guztiarekin: diru-laguntzak, formazioa, etab.

c) Adibide bat: GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOAREN ESTATUTUA: bertan federazioaren funtzioak jasotzen dira (6. artikuluan): lehiaketak antolatu, lehiaketak arautu; entrenatzaileen heziketan parte hartu; diru-laguntzen aplikazioa gauzatu eta kontrolatu... Neska eta mutilen arteko berdintasuna bultzatzeaz ari da, eta ez da jasotzen euskara bultzatzearen aldeko erreferentziarik. Euskarari egiten dion erreferentzia bakarrak barne funtzionamenduari egiten dio aipamena (96. artikuluan). Komenigarria litzateke *ad extra* ondorioak dituzten jardueri ere erreferentzia egitea. Adibidez: *"Federazioak bere jardueretan euskararen erabilera bultzatuko du"*

IV.2. Klubak:

Klubak, oinarri pribatua daukaten elkarteak dira (Kirol Legearen 11. art. eta 163/2010 Dekretua, ekainaren 22koa, Kirol klubei eta kirol elkartei buruzkoa), beraz hasiera batean eman dezake beren jardueran euskara faktorea barneratzeak zailtasunak planteatu ditzakeela. Haatik, aurki daitezke oinarri juridikorik helburu hori betetzeko:

a) Bai Kirol Legean (1. Xedapen Gehigarrian) eta baita aipatu Dekretuan (59. art. eta hurrengoak), Klub horiek erabilerara publikoko gisa (Herri onurakoak) aitortu daitezkeela aipatzen da. Horretarako klubek beraiek eskatu beharko lukete eta baldintza batzuk bete (aitorpena Eusko Jaurlaritzak egingo luke). Aitorpen hori egiteko baldintzen artean, gaur egungo araudiak berak jasotzen du *"Herri-onurako kirol-klubek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte beren jardueretan euskara erabiltzen dela bermatzeko."* (Dekretuaren 60.2. art.). Aipamen hau nahikoa oinarri da klub hauei euskararen erabilera bermatzen dutela galdatzeko. Bultzatu behar dena, beraz, zera da, klubek aitorpen hori eskatzea, eta baldintza hori betetzen dela ikuskatzea;



b) Erabilera publiko hori aitorturik ez daukaten klubak kasuan zailtasun handiagoak daude euskararen erabilera bultzatzeko, beraien izaera pribatua dela eta. Kasu hauetan posible litzateke euskararen erabilera bultzatzeko programak egitera bultzatzea (Berdintasuna bermatzeko egiten den bezala Dekretuaren 74. art. an, Klub handiei aplikatzen zaiona), batez ere nahiz eta oinarri pribatua izan funtzio sozial garrantzitsu bat betetzen dutela onartzen bada Hitzaurrean. Aldi berean berdintasuna bermatzen dutenaren seinale edo bereizgarri bat lortu dezaketen bezala (Bosgarren Xedapen Gehigarria), pentsa liteke gauza bera egitea euskara faktorearekin.

IV.3. Ikastetxeak: goiko atalean esandakoak balio dezake.

IV.4. Entrenatzaileak:

Entrenatzailearen figura garrantzitsua dela ez dago dudarik, bere inguruan antolatzen da eta, hein handi batean, eskola kirolaren egikarritza. Praktikan, ematen du malgutasun handia dagoela entrenatzailearen jarduerak eta jarre-
rak zeintzuk izan behar direnaren inguruan, eta nola garatu behar direnaren inguruan. Arauek eta ebazpenek, orokorrenetatik hasi eta zehatzetaraino joaz, zein titulazio behar den eta titulazio hori lortzeko zein froga gainditu behar diren xedatzen dute. Dakigunez, euskararen faktoreari ez zaio aipamenik egiten prozesu honetan. Euskara faktore hori bermatzeko egungo araudian oinarri juridiko nahikoa bilatu daiteke, nahiz eta egia den puntu honetan oinarri hori ez dela oso sendoa eta komenigarria litzatekeela osatu edo aldatzea. Zentzu honetan EAEn eztabaidatzen ari den Lege Proiektua tresna egokia izan daiteke Euskararen gaia sartu eta oinarri sendo bat izateko Entrenatzaileen Titulazioak lortzeko galdatuko diren baldintzetan euskara ere barneratzeko, gutxienez eskola kirolari dagokionean.

Entrenatzailearen figura dela eta bi ikuspuntu ezberdindu beharko lirateke:

a) Entrenatzailearen figura arautzeko ahalmena: erakunde komunei dagokie eragile honen arauketa orokorra (Kirol Legea, 4.2.d) artikulua). Arauketa hau, dena den, gaur egun oso mugatua da: Kirol Legean 62. artikuluan entrenatzaile izateko beharrezkoak diren tituluak azaltzen dira eta ez da, dakigula, bestelako aipamen orokorrik. Horregatik, titulu horiek lortzeko frogetarako deialdiak, kasu askotan estatuko araudian oinarritzen dira (Adibidez: RD 1363/2007, por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas deportivas de régimen especial. Eta honetan oinarrituz kirol zehatzetara zuzenduriko araudia orokorra: RD320/2000, por el que se establecen los títulos de técnico deportivo y técnico deportivo superior en las especialidades de fútbol y fútbol sala. Eta honetan oinarrituz, Ebazpena, 2010eko martxoaren 23koa, Hezkuntza sailburuordearena, zeinen bidez dei egiten den futboleko eta areto futboleko kirol teknikari eta goi-mailako kirol teknikari titulazio ofizialak eskuratzeko araubide bereziko irakaskuntzetan sartzeko probak, non zein froga gauzatuko diren zehazten da: Froga fisiko eta teorikoak + Euskarari inongo erreferentziarik ez)

EAEn bada gai hau arautzera zuzenduriko Lege Proiektua, Euskadin Kirol lanbideak egikaritu ahal izateko baldintza eta betekizunak arautuko dituena.

b) Nori dagokio entrenatzaileen heziketa? Ematen du eragile ezberdinen lankidetzak gidatuko duela entrenatzaileen hezkuntza jarduera. Kirol Legea (62 eta hurrengo artikulua) eta 16/2006 Dekretua, Euskadiko Kirol Federazioei bu-



ruzkoa (12.i) eta 168. art.) jarraitu ezker, ematen du heziketa hori federakundeen bitartez gauzatuko dela, nahiz eta administrazio autonomikoak eta foru organoek lagundu egin beharko duten funtzio horren egikaritzan.

c) Entrenatzailearen jardunean euskara bultzatzeko oinarri juridikoa: gaur egun oinarri hau aurkitu daiteke, batez ere 16/2006 Dekretuaren 167. artikuluan: *“Kirol federazioek dagozkien babes administrazioek ezartzen dituzten epeetan eta baldintzetan beharko dituzte hizkuntza normalizaziorako planak taxutu, onartu eta gauzatu, gutxika federazioaren baitan euskara arruntki erabil dadin bermatze aldera. Betebehar hori ez betetzeak diru laguntzak jasotzeko aukera galtzea ekarriko du”* eta baita hainbatetan aipatu dugun Kirol Legearen 3. Xedapen Gehigarrian. Eraentza honek guztiak oinarri juridiko nahikoa suposa dezake entrenatzailearen jardueran euskararen erabilera bultzatzeko, kontuan hartzen bada entrenatzailearen figuraren heziketa federakundeei dagokiela hein handi batean. Entrenatzaileek euskara erabiltzea (ez bakarrik ezagutzea) bultzatu edo bermatu daiteke, gero ikusiko diren tresna ezberdinen erabileraren bitartez: erabilera hori sustatuz.

Edozein kasutan, arau ezberdinen osaketa proposatu daiteke oinarri juridiko hau sendoagoa edo osoagoa izan dadin. Adibidez.

-KIROL LEGEA: 62. eta hurrengo artikuluetan entrenatzaileen heziketari buruzko irizpide orokor batzuk zehazten dira, administrazio, federakunde etab. ezberdinen artean elkar-lagunduko dutela esanez heziketa hori egokia izan dadin. Kirol legeak irizpide orokor bat ere jaso lezake, gorago esan dugunez, heziketa prozesu honetan hainbat faktore kontuan hartu beharko direla aipatuz: *“heziketa gidatu behar duten printzipioek kontuan hartu beharko dute kirolaren egikaritzan entrenatzailearen garrantzia zein den. Heziketak posible egin beharko du Kirol legeak jasotzen dituen helburuak errealitatera eramatea”*

-125/2008 DEKRETUA, ESKOLA KIROLARI BURUZKOA: 25. artikulua: titulazio mota ezberdinak galdatzen dira egikaritzako den jardueraren arabera. Adib.: 25.3: *“Ikastetxeetan eskola-orduz kanpo programatzen diren eskolako kirolaren zuzendaritza-jarduera horietan baliozkoa izango da, baita ere, gorputz-hezkuntzaren espezializazioan egindako Maisu-Maistra titulua edo baliokidea”*. Galdakizun hauen artean ez da hizkuntza galdakizunik jasotzen eta posible litzateke adierazpen orokor bat egitea: *“Egoeraren arabera beharrezkoa izango da euskararen oinarritzko ezagutza egiaztatzea”*;

-EAEko Lege Proiektua, Euskadin Kirol lanbideak egikaritu ahal izateko baldintza eta betekizunak arautuko dituen honek ez dio erreferentziarik egiten euskarari. Honela, proposatu liteke:

1) 11. artikuluan entrenatzaileen eginbeharrak jasotzen dira eta “berdintasuna”, “arrazakeriaren debekua”, etab. aipatzen dira: *barneratu liteke euskararen normalizazioari buruzko aipamenen bat: “horrela dagokio nean entrenatzaileak Kirol Legean jasotako irizpideak jarraituz ahal duena egingo du euskararen erabilera normaldua bultzatzeko bere jardueretan”*;

2) Bigarren Xedapen Gehigarrian berdintasuna bultzatzeko politikak sustatzera behartzen dira eragile guztiak. *Gauza bera planteatu liteke euskararekin*; 3) Bigarren Xedapen Iragankorra: entrenatzaileak formatzen edo hezten joateko erregimen iragankor bat jasotzen da. Bertan euskara faktorea aintzat hartzea garrantzitsua litzateke.



IV.5. Epaileak:

Araudirik ez dago, guk dakigula gutxienez. Kasu honetan, beraz, federakundeen erregelamenduak sartuko lirateke jokoan, batez ere lehiaketa zehatzak arautzen dituztenak. Lehiaketei buruzko araudiak 16/2006 Dekretuan, Euskadiko Kirol Federazioena, 36. artikuluan aurkitu dezake bere oinarria, bertan arauketa orokor bat egiten delako. Euskarari buruzko aipamenik ez dago eta posible litzateke aipamen orokor bat egitea zentzu honetan: “euskararen erabilera bultzatuko da EAEren lurralde eremuan emango diren kirol lehiaketa federatuetan”

Kasu hauetan Federakundeetako arauetara jo behar da, kirolaren arabera: lehiaketak arautzen dituzten erregelamenduek baina (kirola edozein dela ere), nik dakidala behintzat, ez dute euskarari buruzko erreferentzia bat ere ez jasotzen. Besterik gabe, txapelketa antolatzen dute, txapelketa edo lehiaketa zehatzari buruzko funtzionamendu arauak ezarriz: nola antolatu, partiduak noiz jokatu, epailearen figura, araudia zigortzailea, etab. Eta egia esan, erregelamendu hauek tresna egokiak izango lirateke lehiaketetan euskararen erabilera bultzatzeko. Nahikoa izan liteke klausula tipo bat gehituz, erregelamendu ia gehienetan (kirolaren arabera) sartu ahalko litzatekeena: “Euskararen erabilerearen normalkuntza: -partiduak edo txapelketak euskararen normalkuntzak galdatzen dituen baldintzetan garatuko dira, egoera zehatzek horrela baimentzen dutenean;-epaileak euskara erabiltzeko gaitasuna izango du taldeek horrela eskatzen dutenean, posible den guztietan; -Partiduaren data zehazterako unean etxeko taldeak kanpo-koari galdetuko dio ea partidua giro euskaldun batean garatzea nahi duen... Horrelako aipamenak erregelamendu hauetan jasotzeko oinarri juridiko nahikoa dagoela ulertzen da hemen, batez ere Federakundeei buruzko araudian.

EAEko Lege Proiektua, Euskadin Kirol lanbideak egikaritu ahal izateko baldintza eta betekizunak arautuko dituen ez zaie aplikatzen epaile edo arbitroei, ulertzen delako (Zioen Adierazpenean) beraien jarduerak ez duelako eragiten hirugarrenen (kirolarien) interes edo ondasun juridiko garrantzitsuetan (osasuna edo segurtasuna, adibidez). Azken hau kritikagarria izan daiteke kontuan hartzen bada epaile hauek praktikan dituzten funtzio garrantzitsuak lehiaketak printzipio eta arau zehatz batzuen eremuan gertatu daitezten: berdintasun eta errespetu giro batean, adibidez.

IV.6. Kirol Eskolak

Kasu honetan subjektu guztiz pribatuak dira, beraz hauen jarduera baldintzatzea askoz ere zailagoa da. Hauei buruzko araudia oso eskasa da, eta guk dakigula berauen sorrera baimentzeko araudia besterik ez dago. Hauen sorrera baimena jasotzeari lotua dago. Foru organoek ematen dute. Foru organo hauek federakunde lurraldetar eta toki erakundeen aurretiazko txosten borondatezkoa (ez-derrigorrezkoa) eska dezakete. Baimena emateko baldintzak bete behar dira, hauek ez betetzeak baimena kentzea (revocación) dakar. Baimenak epe baterako ematen dira, baimenean bertan jasoko den epea. Gero ikusiko denez, Gipuzkoan badago araudia orokorra, eta baita kirol zehatzen araberako araudia zehatza. Interesgarria da arau hauetan Xedapen iragankorrak jasotzen direla baimena lortzeko baldintzak bete ahal izateko eta baimena eskatzeko.



IV.7. Administrazio publikoak

Kasu honetan arazo gutxi dago beraien jardueran euskara bultzatu dezaten oinarri juridiko bat bilatzeko. 10/1982 Legea bera nahikoa izan beharko luke. Ildo berean doaz onartu diren Euskadiko Administrazio Publikoa arautzera zuzendu diren proiektu Legeak edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Lege berria.

IV.8. Ondorioak: Zein politika erabili dezakegu eragile hauekin?

Eragile ezberdinek funtzio ezberdinak dituzte eskola kirolari dagokionean, nahiz eta hein handi batean lankidetzan jarduten duten. Honela izanik, gai honetan euskararen erabilera bultzatu ahal izateko zein tresna erabili dezakegun planteatu beharko da. Pausu hau erabaki politikoa da, juridikoa baino gehiago, agerikoa denez. Ulertzen dugu bi bide egon daitezkeela, bateragarriak izan daitezkeenak baina oso erraz bereiztu daitezkeenak:

a) Politika hertsatzaile eta zigortzailea: federazio eta administrazioek egikaritu ahal izango lukete (edo diziplina politika) (Lege bidez erakunde komunek arautu eta federazioek eta administrazioek aplikatu, Kirol Legeak dionez, nahiz eta Eskola Kirolean, araudiak, 2013ko Dekretuak, eskola kirolaren organo eskuduna aipatzen den). Gaur egun, gure iritziz, ez dago horretarako oinarri juridiko sendorik eta arauak aldatzea bide hau posible izateko ez litzateke erraza izango. Kontuan hartu, juridikoki bide honek suposatuko lukeela “arau-hauste gisa” (zentzu zabal batean ulertuta nahi izan ezker) jasotzea euskararen erabilera eza eta betebeharrak ezartzea. Honek zuzenbide zigortzailearen oinarrian dauden printzipioak errespetatzea galdatuko luke: lege erreserba eta tipikotasun printzipioak batez ere. Lege indarra daukan arau batean jaso beharko liriateke arau hausteak eta zehaztasun maila altuarekin (Kirol Legea eta 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa)

b) Politika sustatzaileak: bide honek arazo juridiko gutxiago planteatu ditzake. Kontuan hartuta eskola kirolaren eremu honetan politika hauek daukaten garrantzia, bai federakunde eta bai klubei ere politika hauek era orokortuan eta jarraituan aplikatzen zaizkiela, sustapen bideak arazo gutxiago planteatu ditzake euskararen erabilera bultzatzeko oinarri juridiko sendoago bat bilatzeko orduan. Gainera, gai hauei buruzko arauak aldatzea errazagoa izan daiteke, arau teknikoak direla kontuan izanda. Honela izanda, kontuan hartu beharko ditugu hiru faktore garrantzitsu: 1) Zein tresna erabiliko diren sustapen politika hori jorratzeko; 2) Denbora faktorea, lurralde ezberdinetako egoera soziolingüistikoa kontuan hartuz; 3) Ikuskaritza jarduera.



5. Tresnak

V.1. Diru laguntzak

Eskola kirolaren eremuan euskara bultzatzeko tresna garrantzitsuena diru laguntzak dira. Eta orokorrean bada oinarri juridiko nahikoa euskara faktore ezinbesteko gisa jotzeko diru laguntza hauek bereganatzeko eta honela eskola kirol eremuan euskararen erabilera bultzatzeko. Kontuan izan diru laguntza hauek euskararen erabilera bermatzera baldintzatzen badira, zeharka, erabilera hori galdatu ahal izango dela.

a) Diru-laguntzak emateko ahalmena:

Orokorrean dirulaguntzen fluxua malgua izan dadin aukera ezberdinak zabaltzen dira. Esan liteke, nolabait, administrazio ezberdinek eskola kirolean era zuzenean jarduten duten eragile garrantzitsuenei (Federakunde eta Klubak) diru laguntzak emateko ahalmena daukatela arauak diotenari jarraitzen badiogu:

-LLHHeK Klub eta Federakundeei: Kirol Legearen, 5.g) art.

-Eusko Jaurlaritzak Federakundeei: Kirol Legearen 4.2. art.

-Administrazio Lurraldetarrek (orokorrean, Udalak, adibidez) Federakundeei: 16/2006 Dekretuan, Euskadiko Kirol Federazioena, 6.2. art.

-Federakundeei Klubei dirulaguntzak esleitzeko ahalmena eta dirulaguntzak aplikatzen direla kontrolatzeko ahalmena: 16/2006 Dekretuan, Euskadiko Kirol Federazioena 12.K) artikuluan: Federazioen funtzioa da: *“Lurraldeko federazioen barruan diren klub eta elkarteentzako diru laguntzak esleitzea, eta aplikatzen direla kontrolatzea”*

b) Diru laguntzak ematerakoan euskara faktorea kontuan hartua izan dadin oinarri juridikoa.

Orokorrean dirulaguntzak edozein ematen zaizkiola ere, aurkitu daiteke arau orokorrik non euskara faktorea kontuan hartzeko oinarria topatu daitekeen. Horren adibide garbiena da Gipuzkoako 3/2007, martxoaren 27ko, Foru Araua, Diru Laguntzei Buruzkoa: Kasu honetan, juridikoki behintzat, euskarari dagokiona oso lotuta azaltzen da: 1) Hitzazuzen: *“Proiektzio sozialeko jarduerak antolatzen dituzten entitateei ematen zaizkien diru laguntzen kasuan, euskararen erabilera soziala zabaltzeko neurriak hartzea aurreikusita dago, betiere Foru Aldundiak onartutako euskararen normalkuntzako politikaren barruan eta Euskararen Normalkuntzari eta Erabilerari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera”*; 2) Diru-laguntzak emateko deialdietan erabiliko diren oinarrietan ere euskara jasotzen da baloratzeko faktore gisa: 7.5. art.: *“Diru laguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileetan euskararen erabilera*



kontuan hartuko da, betiere Foru Aldundiak euskararen erabilera normalizatzeko onartua duen politikaren barruan eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilpena arauzkotzekoak, ezarritakoari jarraituta. Horrelakoetan, diru laguntzak jasotzen dituzten pertsonak euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jarduerekin lotuta dauden agerpen publiko orotan". Arau honen aplikazio zehatza izan daiteke, adibidez Kirol Gaietarako Diru Laguntzak Emateko Oinarri Araua, 2015eko deialdia, 11. puntuan: "Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera berrmatzea diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2013- 2017 aldirako Euskararen erabilera normalizatzeko planaren arabera" + I. Eranskinean: Aparteko Lehiaketak antolatzeke euskararen erabilerari buruzko plan bat egitea galdatzen da + II. Eranskinean: Arautu Gabeko Prestakuntza eta kirol Titulazioak lortzeko Programen kasuan diru laguntza jasotzeko ere "emandako diru laguntzek 1,10eko zuzenketa indizea izango dute, baldin eta ikastaroak euskaraz antolatzen badira."

Era zehatzago baten, federakundeei eta klubei emandako dirulaguntzak direla eta, oinarri sendoa eta zehatzagoa aurkitu daiteke:

-Federakundeei: Kirol Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarria: "Kirol-federazioek beren jardunean euskararen erabilera normalizatzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Bereziki, katalogoetan, programetan, iragarpen-hormirudietan eta beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen duten gainontzeko irudizko edo entzutezko materialean bultzatuko dute euskararen erabilera". Honez gain, kontuan hartu daiteke 16/2006 Dekretuaren, Euskadiko Kirol Federazioena, 167. artikulua ("Kirol federazioek dagozkien babes administrazioek ezartzen dituzten epeetan eta baldintzetan beharko dituzte hizkuntza normalizaziorako planak taxutu, onartu eta gauzatu, gutxika federazioaren baitan euskara arruntki erabil dadin berrmatze aldera. Betebehar hori ez betetzeak diru laguntzak jasotzeko aukera galtzea ekarriko du") eta 168. artikulua ("Eusko Jaurlaritzak eta lurralde historikoetako foru organoek dagozkien kirol federazioei behar bezalako laguntza tekniko eta beharrezko baliabideak eskuratu beharko dizkiete, Euskadiko kirol federazioen baitan hizkuntza normaliza dadin lortzeko helburu komuna lortzearen"). (Azken bi hauek oso garrantzitsuak: 167: diru laguntza jasotzeko euskara plana derrigorrezkoa + diru laguntzetan euskara faktorea jasotzea ezinbestekoa federazioen betebeharrak delako euskara bultzatzea kirolean) Bada, baita ere 287/2000 Dekretua, Euskal Kirol federazioen kirol programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duena, baina honek prozedura arautzen du, euskarari erreferentziarik egin barik.

Federazioei emandako dirulaguntzaren adibide izan daiteke: 2015eko Abenduaren 15eko agindua, hezkuntza, hizkuntza politika eta kultureko sailburuarena, zeinen bitartez arautzen baita euskal kirol federazioen 2016ko kirol programak finantzatzeko diru laguntzen deialdia: hemen euskara bultzatzeko proiektu eta jarduerak garrantzia handia daukate diru-laguntza lortzerako orduan. Adibidez: 3. artikuluan (aurkeztu beharreko dokumentuak): "Federazioak euskara zenbateraino erabiltzen duen adierazten duen memoria (IV. eranskina). Honako hauek aipatuko dira:

- Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.
- Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.
- Euskarazko web orririk duen.
- Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.
- Federazioaren kanpo-harremanetan, federazioko kideekin eta federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzea."



+ Puntuak ematerako orduan 5. artikuluan: *“Euskararen erabilera (puntuen % 10)”*. + IV. Eranskinean, euskara bultzatzen dela frogatuko duen memoria, dokumentu normaldu bat = Ondorioz, ikusten da euskarari aipamen espresa egiten zaiola eta faktore hau kontuan hartzen dela. Hobekuntza gisa, eta onartzen bada euskararen erabilera errealitate eremu honetan garrantzitsua dela oso euskararen erabilera normalizatzeko, onartu liteke, agian: euskara dela eta puntu gehiago ematea edo faktore zuzentzaile gisa garrantzia gehiago ematea eta, baita ere, zerrendatzen diren puntu horiei beste batzuk gehitzea, beraien garrantzia azpimarratzeko: *“euskara darabilten entrenatzaileak kontratatu” “giro euskaldun batean ematen diren lehiaketan antolakuntza”*

-Klubei: Klubei ematen zaizkien diru-laguntzetan euskara faktorea jasotzeko oinarri juridiko nahikoa aurkitu daiteke arauetan, espresuki horrela jasotzen delako 163/2010 Dekretuan, Kirol Klubei eta Kirol Elkarteei buruzkoa, gutxienez erabilera publikoko klubak direnean (60.2. art.: *“Herri-onurako kirol-klubek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte beren jardueretan euskara erabiltzen dela bermatzeko*). Beste suposamenduetan zailagoa izan daitekeela ematen du Kluben oinarri pribatua kontuan hartzen bada, baina horretarako oinarri nahikoa izan daiteke goian aipatu Dirulaguntzak Arautzen dituen Gipuzkoako Foru Araua.

Klubei emandako diru-laguntzetan euskara faktorea jaso daitekeenaren adibidea izan daiteke 2013ko Bergarako udala eta bertako kirol elkarten arteko Hitzarmenean: nahiz eta Hitzarmena izan, bertan jasotzen diren diru laguntzak ematerako orduan euskara faktore garrantzitsu gisa jasotzen da, adibidez puntuaketak egiterako orduan: seigarren klausula *“Elkartea jakitun da klubak egiturak eta ekintzak laguntzeko aurreikusitako diru-kopuru osotik % 10 gordeko dela (... euro) euskararen erabileraren arabera banatzeko. Horretarako, ohiko entrenamenduak eta partiduak (baita kirol-eskoletakoak ere), eta entrenatzaile eta epaileentzako prestakuntza-ikastaroak izango dira kontuan. Hartuko den adin-tartea: 18 urtez azpikoak. Puntuazio-sistema: Finkatutako diru-kopurua honelako puntuazio sistemaren arabera banatuko da: o Entrenamenduak eta partiduak Kirolari kopurua, entrenatzailearen hizkuntza-erabileraren arabera: euskaraz, 1 puntu kirolari bakoitzeko; gehiena euskaraz, 0,75 puntu kirolari bakoitzeko; gehiena gaztelaniaz, 0,25 puntu kirolari bakoitzeko; eta gaztelaniaz, 0 puntu. Entrenatzaile bat baino gehiago badago taldeko, entrenatzaileen batez bestekoa izango da kontuan, puntuak emateko. Entrenatzaile kopurua hizkuntza-erabileraren arabera: euskaraz dabiltzanak, 4 puntu; gehiena euskaraz dabiltzanak, 2 puntu. o Entrenatzaile eta epaileentzako prestakuntza-ikastaroak: Bergaran jaiok edo Bergaran entrenatzen dutenek euskaraz jasotako prestakuntza orduen arabera: 4-20 ordu euskaraz, 1 puntu entrenatzaile bakoitzeko; 20-50 ordu euskaraz, 2 puntu entrenatzaile bakoitzeko; 50- 100 ordu euskaraz, 3 puntu entrenatzaile bakoitzeko; eta 100 ordutik gora euskaraz, 4 puntu entrenatzaile bakoitzeko”*.

c) Ondorioak:

Ikusten denez, diru laguntzen kasuan araudiak tresna nahikoa jasotzen edo aurreikusten du euskara bultzatzeko errealitate eremu honetan. Diru laguntzen garrantzia ezinbestekoa da, kontuan hartzen bada praktikan urtero aldundiak ematen dituen diru laguntza kopuru handia (www.gipuzkoairekia.eus). Hori dela eta, faltan botatzen den faktorea diru-laguntzen jarraipena izango litzateke. Hau da, ikuskaritza jarduera, administrazioek eta bestelako eragileek



(Foru Aldundiak eta Federazioak kasu honetan) egikaritu beharko luketena. Izan ere, arauetan jasotzen diren tresna horiek guztiak, plan eta programak, hizkuntza proiektuak etab., ez dira gero aurkitzen errealitatean salbuespenak

salbu. Diru laguntzak ematea baldintzatu daiteke euskara bera eta bere erabilera bultzatzera jarduera zehatz batzuen bitartez: entrenatzaile euskaldunak kontratatu, euskararen erabilera bermatu entrenamendu eta lehiaketetan, jarduera hauek giro euskaldun batean egin, etab. Eta berauek gertatzen direla ziurtatuko da ikuskaritzaren bitartez, ez hainbeste jarduera hertsatzaile eta zigortzaileen bitartez, baizik eta hurrengo deialdietan dirulaguntzak jasotzeko aukerak murriztuz edo ezabatuz.

V.2. Hitzarmenak

Lankidetzak hitzarmenak ezinbesteko tresna bilakatu dira orain arte eskola kirolari dagokionean, izan ere hitzarmen hauen bitartez eragile ezberdinen arteko harremanak bultzatu dira eskola kirola bultzatzeko. Gaur egun Bizkaia eta Araban oso erabilia den tresna da eta Gipuzkoan ere bada horren adibiderik. Hitzarmen hauek ezinbesteko tresna izan daitezke euskara eremu honetan bultzatzeko, hain zuzen hitzarmenak sinatzeko baldintza gisa euskara faktorea jasotzen bada. Garrantzia hau areagotu egiten da kontuan hartzen bada hitzarmen hauen bitartez, kasu askotan, diru-laguntzak ematen direla. Hitzarmena sinatzea baldintzatu daiteke, diru-laguntzekin gertatu daitekeenez, euskara bera eta bere erabilera bultzatzera jarduera zehatz batzuen bitartez: entrenatzaile euskaldunak kontratatu, euskararen erabilera bermatu entrenamendu eta lehiaketetan, jarduera hauek giro euskaldun batean egin, etab. Eta berauek gertatzen direla ziurtatuko da ikuskaritzaren bitartez, ez hainbeste jarduera hertsatzaile eta zigortzaileen bitartez, baizik eta hurrengo urteetan hitzarmenak sinatzeko aukerak murriztuz edo ezabatuz.

Lankidetzak-Hitzarmenek orokorrean, teoria orokorrari heltzen badiogu, aurkezten duten arazo handiena, eta aldi berean abantaila izan daitekeena, zera da: hauen arauketa oso urria dela. Arau orokorretan jaso daitezkeen erreferentziak oso mugatuak dira eta besterik gabe hitzarmenak sinatzeko ahalmena aurreikustera zuzentzen dira. Kontratu Publikoari buruzko araudiaren aplikazioa ere oso mugatua da kasu hauetan (printzipioei dagokienean gehien bat). Arauketa falta hau oso kritikatu izan da hainbatetan, izan ere ematen duelako praktikan askatasun handia egongo dela hitzarmen horiek formalizatzeko, hitzarmenak diru-laguntzak ezkutatzeko tresna bilakatu daitezkeelarik, nahiz eta gardentasun arauetara lotuta dauden. Kontuan hartu 2016ko urrian indarrean sartuko den (indarrean sartzen bada) estatuko 40/2015 Legeak Hitzarmenei buruzko arauketa jasotzen duela 47. artikulutik aurrera. Arauketa berri honek hitzarmenak sinatzeko baldintzak jasotzen ditu eta eduki minimoak arautzen ditu. Printzipioz, guri dagokigunez, ez du ematen oztoporik suposatzen dezakeenik euskara faktorea jasotzeko hitzarmen mota hauetan.

Honela, emango luke askatasun nahikoa dagoela hitzarmen hauetan euskara faktorea jasotzeko hitzarmena sinatzeko baldintza gisa, goian aipatu den oinarri juridiko orokorrari helduz (Kirol Legea edo Federazioak arautzen dituen Dekretua edo Erabilera Publikoko Klubei dagokienean). Hala ere, kasu zehaztuetan, holako hitzarmenak arautu nahi izan direnean elementu formalak aipatu dira gehienbat, euskara kontuan hartu barik.

a) Hitzarmenak sinatzeko ahalmena:

Hitzarmenak sinatzeko ahalmena arauetan jasotzen da.



-LLHH eta Udalak: Kirol Legearen 6.a) artikuluan eta 5.2. artan. LLHHei dagokie: *“Kirola guztientzat sustatzeko kirol-politika onartzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzeko”* eta Udalei dagokie: *“Lurralde historikoetako foru-organismoek onartutako eskola-kiroleko programak burutzeko, haiekin koordinatuta jokatzeko”*;

-LLHHa Klub eta Federakundeekin: Kirol Legearen 5.g) artikuluan: LLHHei dagokie: *“g) Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteek beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzea kontrolatuko da.”*

-Eusko Jaurlaritzaren Federazioekin eta beste AAPPeekin: Kirol Legearen 25.3. artikulua: *“Lurralde-federazioek eta euskal federazioek, hurrenez hurren, lurralde historikoetako foru-organismoen eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin burutuko dituzte beren egitekoak. Horretarako, lankidetzaren hitzarmenak izenpetuko dituzte elkarren artean, eskuordetzan emandako egiteko publikoekin zuzenean lotutako helburuak, kirol-programak, aurrekontuak eta gainontzekoak zehazteko. Lankidetzaren hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa edukiko dute”* eta EAEko Lege Proiektua Euskadin Kirol lanbideak egikaritu ahal izateko baldintza eta betekizunak arautuko dituena: Lehenengo Xedapen Gehigarria: *“Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren tresnak sustatuko ditu beste administrazio publikoekin, federakundeekin eta bestelako kirol entitateekin... kirol lanbideen egikaritzea osasungarria, segurua eta kalitatezkoa izan dadin”*: ulertu daiteke kalitateak euskarari ere erreferentzia egiten diola.

-Udalak beste guztiekin: 2/2016 Legea EAEko Toki Erakundeei buruzkoa, 7.5. art.: *“Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte”*.

-Federazioek AAPPeekin: 16/2006 Dekretua Euskadiko Kirol Federazioena, 16.1. art.: *“Lurraldeko federazioek eta Euskadiko federazioek euren funtzioak, hurrenez hurren, lurralde historikoetako foru organismoetako eta Eusko Jaurlaritzako organikoetako lankidetzan beteko dituzte. Horretarako, elkarrekin lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango dituzte, helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordeturiako funtzio publikoekin zuzenean loturiko gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horien izaera juridiko-administratiboa izango da”*

b) Hitzarmenetan euskara faktorea jasotzeko oinarri juridikoa:

-Federazioen kasuan: 16/2006 Dekretua Kirol Federazioena 167. artikulua: *“Kirol federazioek dagozkien babes administrazioek ezartzen dituzten epeetan eta baldintzetan beharko dituzte hizkuntza normalizaziorako planak taxutu, onartu eta gauzatu, gutxika federazioaren baitan euskara arruntki erabil dadin bermatze aldera. Betebehar hori ez betetzeak diru laguntzak jasotzeko aukera galtzea ekarriko du”* + 168. artikulua: *“Eusko Jaurlaritzak eta lurralde historikoetako foru organismoek dagozkien kirol federazioei behar bezalako laguntza teknikoa eta beharrezko baliabideak eskuratu beharko dizkiete, Euskadiko kirol federazioen baitan hizkuntza normaliza dadin lortzeko helburu komuna lortzearen”*. (Azken bi hauek oso garrantzitsuak: euskara bultzatzeko hitzarmenak sinatzera bultzatzen duela eman dezake. Ez bakarrik diru-laguntzen eremuan, baizik eta federazioek jarduten duten edozein jardueratan. 168. artikulua oinarria da horretarako, AAPP ezberdinak eta Federazioak harremanetan jartzean);



Bizkaiko Foru organoen kasuan: 1305/2015 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Diru Laguntzak eman eta Laguntza Hitzarmenak sinatzeko prozedurari buruzkoa: prozedura arautzen da gehienbat (arau honetan, posible da euskara lehentasunezko irizpide jasotzea hitzarmenak sinatzerako orduan, goian aipatu arau orokor horiek posible egiten dutelako).

-Klubak: 163/2010 Dekretua, Klubei eta Kirol Elkarteei Buruzkoa, erabilera publikokoak (Herri onurakoak) direla aitortzeko baldintza batzuk bete behar dituztenez euskara faktorea jasotzeko oinarria 60.2. art.: *“Herri-onurako kirol-klubek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte beren jardueretan euskara erabiltzen dela bermatzeko.”* (Esan liteke, erabilera publikoa aitortua daukaten klubek hitzarmenak sinatzeko euskara lehenetsi beharko dutela, kontuan hartuta plangintza hori galdatzen zaiela). Erabilera publikokoak ez diren klubak kasuan zailagoa ez baitago Diru-laguntzen kasuan bezala Foru Araurik horretarako ahalbidetzen duenik. Aukera bakarra araudia orokorrenera jotzea izango litzateke, kontuan hartuta klub horiek beraien jardueran funtzio sozial garrantzitsua betetzen dutela eta hitzarmenak sinatzea alderdien borondatearen arabera dela, horrek ematen duen askatasunarekin.

c) Ondorioak

Hitzarmenetan euskara faktorea barneratzen joan da praktikan. Gipuzkoan erabili diren eredu ezberdinak aztertu ezker ondorioztatu daiteke faktore horri garrantzia eman zaiola hitzarmena formaltzerako orduan. Horren adibide izan daiteke,

1) Eskolako Kirola begiratu eta Kudeatzeko Udalen eta Ikastetxeen arteko Hitzarmenaren eredu, zeinetan hurrengo jasotzen baiten: *“Kirol jardueretan lan egingo duten guztiak elebidunak izan daitezela saiatu behar du ikastetxeak eta bere eskuan dagoen guztia egingo du eskola kirolean ohizko hizkuntza euskara izan dadin, B eta D ereduak ikasleek euskaraz egin dezaten kirol jarduerak egiten ari direnean”* (Eredu honetan, adibidez, udalak konprometitzen dira bere instalazioak erabiltzen uztera eta dirulaguntzak ematera. Baldintzak bete ezean hitzarmena bertan behera utziko da;

2) Zentzu berean Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Toki erakundearen artean Bien Lurralde Esparruan Kirola Bultzatzeko Egitura Egonkorra Finantzatzeari Buruzko Lankidetzaren Hitzarmenaren eredu: I. Eranskinaren 4.7. Klausulan: *“Pertsonal teknikoak euskara sustatzea (koordinatzaileak eta irakasleak). Pertsonal teknikoa elebiduna izango da, B eta D ereduak udalerrian duten ezarpenaren proportzio berean gutxienez. Pertsonal teknikoarentzat udalerrian antolatutako bide diren ikastaroetan, euskararen erabilera sustatzea”*;

3) Zentzu berean Hitzarmen zehatz ezberdinak: 2013ko Bergarako udala eta bertako kirol elkarten arteko Hitzarmenaren: Hirugarren klausulan: *“Euskararen erabileraren inguruan, honako hizkuntza irizpideak betetzeko konpromisoa hartzen du elkarteak: Mezu idatziei dagokienez (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka), euskaraz edo ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) idatziko dira. Beti eduki beretsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez; eta ele bietan egiten diren kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Testuak hizkuntza aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara*



Zerbitzura eraman beharko dira. Ahozko komunikazioetan ere euskara hutsa erabiltzera joko da eta bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz eta, mezua errepara-

tzen denean, erdarazkoa baino bi aldiz sarriago, behintzat, emanez eta ");

4) Zentzu berean Eskola eta Kluben arteko Gipuzkoako Hitzarmen eremuan, non Hirugarren klausulan zera jasotzen den: *“Kirol elkartearen kirol teknikariak elebidunak izango dira, eskola kirolaren ohiko hizkuntza euskara izaten ahalginduko dira eta B eta D ikastereduetako eskolumeek eskola kirola euskaraz egingo dute”*;

Kasu honetan, dirulaguntzekin gertatu denaren antzera, behin euskara hitzarmena formaltzeko faktore gisa barnertuta jarduera garrantzitsuena ikuskaritza jarduera izango litzateke, hain zuzen faktore hori (beste baldintzekin gertatzen den legez) errespetatu den ala ez aztertzeko.

V.3. Kirol Eskolak sortzeko baimena

Eskola kirola bultzatzeko eta garatzeko beste tresna bat, gero eta garrantzia handiagoa izan dezakeena, kirol eskolak dira. Kirol eskolen garrantzia handia da. Suposamendu honetan beraien jarduera kontrolatzea zailagoa da, aurrekoekin konparatuz, goian esan bezala, kontuan hartuz subjektu guztiz pribatuak direla, inongo funtzio publikorik egikaritzen ez dituztenak eta erabilera publikoko izaerarik ez daukatenak. Kirol eskolei buruz ari garenean, hemen, ez gara ari klubei buruz, baizik eta enpresa izaera duten eta jarduera ekonomiko bat egikaritzen duten subjektu pribatuei buruz ari gara. Kirol eskolak sortzeko araubideak baimena galdatzen du. Foru organoek eman beharreko baimena da. Baimen honen figura ez da orokorrean garatu, nahiz eta Gipuzkoan bada garapen zehatzik. Baimen hauek emateko, baina, ez da euskararen faktorea jasotzen eta proposatu daiteke horrela izatea, goian aipatu araudia orokorrean oinarrituz, ez bakarrik diru-laguntzak jaso edo hitzarmenak sinatzerako orduan, baizik eta orokorrean euskara bultzatzeko bere jardueran kontuan izanik kirolaren garrantzia adin horretako umeentzat. Arauetan jasotzen den erreferentzia bakarra zera da: baimena eskatzeko entrenatzaile edo bestelako teknikarien “hizkuntza gaitasuna” frogatu beharko dela, baina gaitasun zehatzik exijitu barik. Hau honela izan badaiteke ere, kasu honetan euskararen erabilera galdatzeko aukerak murriztagoak dira, kontuan izanda subjektu guztiz pribatuak direla. Beraz, arauetan erabili beharko litzatekeen klausula euskararen erabilera faktore gisa jasotzeko oso orokorra izan beharko luke.

a) Baimena emateko ahalmena: Foru organoek (125/2008 Dekretuaren, Eskola Kirolari buruzkoa, 12.2. artikuluan): 12.2 artikulua: *Jarduera hauek eskolako kirolari buruzko programetan adierazitako hasiera- eta teknifikazio-unitateetan baino ezin dira egin, edota, hala badagokio, foru organo eskudunen administrazio-baimena jasotzen dutenetan.*

b) Euskara faktorea jasotzeko aukera: orokorrean aipatu dekretuak ez du euskara faktorea kontuan hartzen baimena jasotzeko baldintzak arautzerakoan (Dekretuko 12.3. artikulua) Egokia litzateke oinarri juridiko sendo bat izateko araudia egokitzea holako klausula bat jasoaz, adibidez: “gizon eta emakumeen arteko berdintasunak eta euskararen erabilera normalizatzeko araudiak galdatzen dituen betekizunak errespetatu” edo ikasleen hizkuntza beharrak asetzeko proiektu bat jaso beharko dute.

Araudia orokor hau garatuz Gipuzkoan bada baimen hori erregulatzen duen araurik:



63/2007, Gipuzkoako Foru Agindua, eskola ikasleentzako Kirol Teknikazioko Unitateei Baimena ematea arautzen duena. Araudia honek, aldiz aurreko Dekretuan jastoako araudia jasotzen du gehienbat, eta ez du euskarari buruzko erreferentziarik jasotzen.

Araudia hau zehaztu egin izan da kirol zehatzen arabera. Honen adibide da: Otsailaren 25eko 69/2008 Foru Agindua, 63/2007 Foru Agindua aplikatzen duena saskibalo, eskubalo, futbol, areto futbol eta errugbiko astapeneko unitateetan. Hauetan ere, dakigula ez da euskara faktorea espresuki jasotzen. Erreferentzia bakarra zera litzateke: 10.3 artikuluan: *“Jarduerei hasiera eman eta hilabetera, baimena jaso duten hasapenerako unitateen titularrek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute: (...) teknikarien identifikazio datuak eta titulazioak, bakoitzaren hizkuntza gaitasun adierazita”*.

Pentsa liteke Euskadiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen eskubideak arautzen dituen 6/2003 Legeak, 37. artikuluan jasotako eskubide linguistikoak direla eta (Eskubide hauek 123/2008 Dekretuan garatzen dira), oinarria ematen duela horretarako. Baina pentsa eskubide horiek progresibitate printzipioari lotzen zaizkiola.

c) Ondorioak

Kasu hauetan euskara faktorea jasotzea posible litzateke diru-laguntzak jasoko balituzte edo hitzarmena sinatuko balituzte. Bestela, ez du erraza ematen euskara faktorea jasotzea baimen hauetan egungo araudian, ez baldin bada arau orokorrenetara joaz eta oso era orokorrean, betebeharrak zehatzik jaso barik. Gehinez, gure ustez, planak edo programak egitea bultzatu ahalko litzateke, baina ez euskararen erabilera derrigorrezko baldintza gisa jasotzea.

Betebeharrak hori inposatzea zailtzen duten arau ezberdinak daude:

1) Ley Unidad de Mercado (3. artikuluan principio de no discriminación: *“1. Todos los operadores económicos tendrán los mismos derechos en todo el territorio nacional y con respecto a todas las autoridades competentes, sin discriminación alguna por razón del lugar de residencia o establecimiento. 2. Ninguna disposición de carácter general, actuación administrativa o norma de calidad que se refiera al acceso o al ejercicio de actividades económicas podrá contener condiciones ni requisitos que tengan como efecto directo o indirecto la discriminación por razón de establecimiento o residencia del operador económico”*.

2) Estatuko Administrazioaren kasuan 1778/1994 Errege Dekretua, baimenak emateko jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa (eredu bat izan daiteke)

3) Europar Batasuneko araudia lehiakortasuna bultzatzeari buruzkoa. Directiva de Servicios 2006/123/CE: zerbitzuak ematea mugatzea baimenen bitartez oso arrazoi mugatuak argudiatuz bakarrik (ingurugiroa, hirigintza, segurtasuna... hizkuntza ez da jasotzen baldintza gisa): enpresa askatasuna mugatzeko baldintzak oso mugatuak.



V. 4. Programak

Arauek esaten dutenez Foru Organoek urtero onartuko dituzte urteko kirolerako jardueren programak. Edozein kasutan, programa horien exekuzioan parte hartuko dute bai Foru organoek eta baita udalek ere, lankidetzan. Programa hauen garrantzia ezinbestekoa izan daiteke praktikan euskararen erabilera eskola kirolean bultzatzeko, kontuan hartuta berauek daukaten zehaztasun maila. Programek beraiek ez daukate araudia propiorik, guk dakigula behintzat. Programek, araudia orokorra aplikatuz arau-neurri antzera jokatzen dute, plangintza zehatz bat finkatuz, eskola kirolean eragiten duten faktore ezberdinak kontuan hartuz. Hauetan euskara faktorea jasotzea ere garrantzitsua izango litzateke.

a) Ahalmena

Foru organoei dagokie programen onarpena (Kirol Legearen 5. art. eta 55. art. eta 125/2008 Dekretua Eskola Kirolari buruzkoa 3. art.). Programa hauen exekuzioa LLHH eta Udalei lankidetzan dagokie (Kirol Legearen 6. art.).

b) Euskara faktorea

Ezagutu ditugun programa hauetan ez da euskara faktorea jaso. Haatik ez du ematen inongo arazorik planteatu daitekeenik horrela izateko, kontuan hartuta programa hauetan eskola kirolaren hainbat puntu zehatz jasotzen direla, diru laguntza eta hitzarmenak kontuan hartuko dituztenak. Programa hauetan epe zehatz batean zehar antolatuko diren kirol jardueren hainbat puntu garrantzitsu zehazten dira: janzkera, epaiketa, partiduen deialdiak... Logikoki programa hauetan egiten diren aurreikuspen hauek oinarri juridiko bat daukate arau orokorretan (Kirol Legea, Eskola Kirolari buruzko Dekretua, etab.), baina zehaztasun maila oso altua daukate, arau neurri (norma medida) gisa, oso tresna aproposa izanik lan honetan proposatzen den helburua betetzeko: arau juridiko orokorrek egiten duten euskararen erabilera normalduaren aldeko aldarrikapen orokortua puntu zehatzetara eraman liteke hauen bitartez, errealitate berriak arautu barik (Lege erreserba printzipioa urratu barik), baina bai zehaztuz: lehiaketetan, entrenatzaileen heziketan, entrenamenduetan, arbitrajeetan...

Haatik, deigarria da nola programa hauetan ez dagoen euskara bultzatzeko adierazpen edo aldarrikapen zehatzik. Horregatik proposatzen da adierazpen zehatz horiek jasotzea, behar bada arau orokorrei erreferentzia eginez: Adibidez: I. Eranskinean esaten da kirolera sarrera eskubidea bermatu behar dela diskriminaziorik barik. Diskriminazio kontzeptu hori zehaztu liteke “erlijioa, sexua, hizkuntza aipatuz, adibidez.

V.5. Ahalmen araugilea

Dagoeneko goian aipatu dugu, ez da behar, beraz, berriro errepikatzea.



6. Xedapen iragankorra

Aipatu tresna hauez guztiez gain garrantzitsua izan daiteke, ikuspuntu soziologikotik gehienbat, neurri hauek guztiak aplikatzeko arauetan egin daitezkeen aldaketak xedapen iragankorrek lagunduta etortzea. Arauek egin dezaketen exijentzia errealitateak ematen dituen aukerekiko proportzionala izan behar da. Honela, arau batzuek dagoeneko jaso dituzte holako xedapen iragankorrak:

16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena 3. Xedapen Iragankorra: *“Kirol federazioek hizkuntza normalizatzeko duten betebeharrari pixkanaka erantzungo diote. Estatutuetako eta arautegietako xedapenek, zirkularrek, ziurtagiriek, lizentziek eta txartelek edota gisa bereko agiriek, federazio organoen deialdiek eta kirol federazioen lehiaketen kartelek, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dute dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo denboralditik aurrera, salbu eta dekretua hau indarrean sartu eta sei hilabete igaro baino lehenago hasten bada denboraldi hori. Premiazko kasuetan baino ez da onartuko agiri horiek Euskal Autonomia Erkidego bi hizkuntza ofizialetan ez izatea.”*

63/2007, Gipuzkoako Foru Agindua, Eskola Ikasleentzako Kirol Teknikazioko Unitateei Baimena Ematea arautzen duena, Xedapen iragankorrak: kirol zehatzen arabera araudia propioa onartzen den bitartean eta araudia onartuta daukaten kirol zehatzetan baimena eskatu ahal izateko baldintzak betetzeko hiru hilabeteko epea.



7. Ikuskaritza

Orain arte aipatu neurri eta tresna guztiek aukera ezberdinak zabaltzen dituzte eskola kirolaren eremuan euskararen erabilera bultzatzeko. Diru laguntzek, hitzarmenek, programek, etab. aukera ezberdinak aurkezten dituzte. Baina horien aplikazioa egiazkoa izan dadin beste tresna juridiko garrantzitsu baten erabilera egoki eta zuzena beharko da. Ikuskaritza ahalmenaz ari gara. Aurreko tresna horiek guztiek ez dute zentzurik izango eragile ezberdinek dagokien ikuskaritza jarduera era egokian gauzatzen ez badute, ezarritako baldintza eta hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatuz. Ikuskaritza ahalmen honen egikaritzak bi faktore hartu beharko ditu kontuan:

VII.1. Ahalmenaren titularra

Goian aipatu arau ezberdinak kontuan hartu ezkerreko ikuskaritza jarduera gauzatzeko ahalmenak oso banandurik daudela egiazta daiteke: Eusko jaurlaritzari eta LLHHei orokorrean eskola kirolaren gain (125/2008 Dekretuaren 23. art.); LLHHei dirulaguntzak era egokian erabiltzen direla bermatzeko eta federakundeek beraien funtzio publikoak betetzen dituztela egiaztatuzeko (Kirol Legearen 5.g) eta h)). Baita baimenetan ezarritako baldintzak errespetatzen direla kontrolatzeko (63/2007, Gipuzkoako Foru Agindua); Federakundeei dagokie klub eta bestelako elkarteek diru laguntzak aplikatzen dituztela egiaztatuzeko (16/2006 Dekretua, Euskadiko Kirol Federazioena, 12.k) art.). Ikuskaritza egikaritzeko oztoporik ez dago, beraz, kontuan hartzen bada hainbat eragilek egikaritu dezaketela kontrol jarduera hori.

VII.2. Nola eta ondorioak

Ikuskaritza nola gauzatu den eta bere ondorio juridikoak zeintzuk izango diren pentsatu behar da. Ikuskaritza nola gauzatu daitekeen zehazterako orduan askatasun handia dago. Honela, pentsa daiteke inkestak egitean, edo bertaratze klasikoan, adibidez. Adibide bat honakoa izan daiteke: 2013ko Bergarako udala eta bertako kirol elkartearen arteko Hitzarmenean, seigarren klausulan, euskararen erabilera kontrolatzeko (kontuan hartuta honen arabera diru laguntzak lortzeko puntu gehiago edo gutxiago lortuko direla): *“Neurketa sistema Denboraldi hasieran klubeko arduradunekin edo entrenatzaileekin bilera bat egingo da eta taldeari eta entrenatzaileei buruzko informazioa jasoko da, entrenatzaileek beteko duten fitxa baten bidez. Prestakuntza ikastaroei buruzko informazioa, berriz, denboraldi amaieran jasoko da, horretarako beteko den fitxa baten bidez. Ikasturtean bi neurketa egingo dira eta dirua denboraldi amaieran banatuko da. Neurketa-modua orain arteko bera izango da: Euskara Zerbitzuak ebaluatuko du galdeketa eta behaketa bidez. Klub bakoitzak arduradun bat izendatuko du, eta kontraesanik izanez gero, adostu egingo dira”*

Ikuskaritza ahalmenaren egikaritzak ondorio gisa badakar euskara faktoreari lotutako baldintzak ez direla bete, pentsatu behar da horrek zein ondorio ekar ditzakeen. Zentzu honetan, hitzarmen eta dirulaguntzen kasuan ondorioa izan liteke hurrengo deialdietan edo urteetan parte hartzeko aukerak murriztea edo penalizatzea. Adibidez, Eskolako Kirola begiratu eta Kudeatzeko Udalen eta Ikastetxeen arteko Hitzarmenaren eremuan jasotzen da baldintzak bete



ezean Hitzarmena bertan behera geratuko dela eta jasotako dirulaguntzak itzuli beharko direla; edo 2013ko Bergarako udala eta bertako kirol elkarten arteko Hitzarmenean, Hamabigarren klausulan: *“kirol elkarteak hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu, hitzarmen hau bukatutzat emango du Udalak, eta ordaintzeko geratzen diren laguntzaren zatiak ez ditu ordainduko, eta jasotakoak itzultzea eskatu ahal izango du”*.